

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2025eko ekaina

2025eko ekainean Euskal AEko landetxetan emandako ostatu-gauak % 19,6 hazi dira eta apartamentu turistikotan emandakoak % 27,3; aterpetxe turistikotan emandakoak, berriz, % 12,5 jaitsi dira

2025eko ekainera arte metatutako balantzeak balio positiboak erakusten ditu aztertutako hiru establezimendu moten sarreretan

2025eko ekainean, Euskal AEko landetxetan sarrerak % 19,0 hazi dira eta ostatu-gauak % 19,6, aurreko urteko hil beraren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Urte arteko hazkunde horiekin, sarrera kopurua 20.190ekoa izatera iritsi da ekainean, eta ostatu-gauen kopurua 47.001 izan da guztira.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Ekaina 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2025/06	m/m-12 (%)	2025/06	m/m-12 (%)	2025/06	2024/06	2025/06	p.p. *	2025/06	p.p. *
EUSKAL AE	20.190	19,0	47.001	19,6	2,33	2,32	35,5	6,0	43,0	6,5
Estatukoak	13.379	20,2	31.653	20,9	2,37	2,35	-	-	-	-
Atzerriarrak	6.811	16,7	15.348	17,2	2,25	2,25	-	-	-	-
Araba/Álava	3.548	19,9	7.467	14,9	2,10	2,20	23,9	4,1	30,3	5,3
Estatukoak	2.678	16,2	5.514	11,3	2,06	2,15	-	-	-	-
Atzerriarrak	870	33,0	1.953	26,5	2,24	2,36	-	-	-	-
Bizkaia	6.539	23,3	14.300	7,2	2,19	2,51	37,6	2,2	42,8	-0,5
Estatukoak	3.852	12,6	9.007	1,7	2,34	2,59	-	-	-	-
Atzerriarrak	2.687	42,8	5.293	18,2	1,97	2,38	-	-	-	-
Gipuzkoa	10.103	16,1	25.234	29,8	2,50	2,23	40,1	8,9	49,4	11,3
Estatukoak	6.849	26,7	17.132	38,5	2,50	2,29	-	-	-	-
Atzerriarrak	3.254	-1,3	8.102	14,5	2,49	2,15	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Uztailaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko ekainarekin alderatuta % 16,7 hazi ondoren, atzerriko bisitarien sarrerak Euskal AEko landetxetan izandako sarrera guztien % 33,7 izan dira. Ostatu-gauen kasuan, bestalde, atzerriar jatorrikoenak guztizkoaren % 32,7 izan dira, 2024ko ekainaren aldean % 17,2 handitu ondoren.

Lurralde historikoen arabera, 2025eko ekainean, sarreren urte arteko hazkundeak % 23,3koak izan dira Bizkaian, % 19,9koak Araban eta % 16,1ekoak Gipuzkoan. Ostatu-gauei dagokienez, hazkundeak % 29,8koak izan dira Gipuzkoan, % 14,9koak Araban eta % 7,2koak Bizkaian.

Euskal AEn mota horretako establezimenduetan batez besteko egonaldia (1) 2,33 egunekoa izan da ekainean, 2024ko ekainean izandako 2,32 eguneko batez besteko egonaldiaren antzekoa. Plazen eta logelen okupazio-mailek urte batetik bestera ehuneko 6,0 eta 6,5 puntu egin dute gora, hurrenez hurren; plazen arabera neurtuta % 35,5ean kokatuz eta logelen arabera neurtuta % 43,0an.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2025eko ekainean 28.597 sarrera izan dira; horren ondorioz, 75.458 ostatu-gau izan dira. Aurreko urteko ekainean erregistratutako datuekin alderatuz gero, % 57,4 igo dira sarrerak eta % 27,3 ostatu-gauak.

Apartamentu turistiko esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen utsiapeneko enpresa-unitate baten ardurapean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak**, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Ekaina 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-beste egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2025/06	m/m-12 (%)	2025/06	m/m-12 (%)	2025/06	2024/06	2025/06	p.p. *	2025/06	p.p. *
EUSKAL AE	28.597	57,4	75.458	27,3	2,64	3,26	41,9	1,5	76,3	7,0
Estatukoak	16.620	55,9	42.658	22,6	2,57	3,26	-	-	-	-
Atzeritarrak	11.977	59,4	32.800	34,0	2,74	3,26	-	-	-	-
Araba/Álava	860	-6,1	8.997	-4,1	10,47	10,25	26,5	-3,6	66,6	-12,6
Estatukoak	646	-16,6	6.753	7,0	10,46	8,15	-	-	-	-
Atzeritarrak	214	51,7	2.245	-27,0	10,49	21,83	-	-	-	-
Bizkaia	19.905	67,1	38.661	50,2	1,94	2,16	43,7	3,9	75,1	19,0
Estatukoak	11.638	67,6	20.840	49,4	1,79	2,01	-	-	-	-
Atzeritarrak	8.267	66,4	17.821	51,1	2,16	2,37	-	-	-	-
Gipuzkoa	7.832	46,5	27.800	15,1	3,55	4,52	48,1	1,0	81,8	3,4
Estatukoak	4.337	47,4	15.065	3,6	3,47	4,94	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.496	45,5	12.735	32,5	3,64	4,00	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Uztailaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetan izandako sarrera guztien % 41,9 eta ostatu-gau guztien % 43,5 atzerriko jatorriko bisitariei dagozkie, 2025eko ekainean % 59,4ko eta % 34,0ko urte arteko igoerak erregistratu ondoren, hurrenez hurren.

Euskal AE osoko apartamentu turistikoetan batez besteko egonaldia 2,64 egunekoa izan da 2025eko ekainean, 2024ko ekainean erregistratu zen 3,26 egunekoaren azpitik. Mota horretako establezimenduetan batez besteko egonaldia 10,47 egunekoa izan da Araban, 3,55 egunekoa Gipuzkoan eta 1,94 egunekoa Bizkaian.

Plazen okupazio-maila % 41,9koa izan da Euskal AEn, 2024ko ekainarekin alderatuta ehuneko 1,5 puntu galdu ondoren. Apartamentuen okupazio-mailak ehuneko 7,0 puntu egin du gora, eta % 76,3koa izan da.

Euskal AEko **turismo-aterpetxeei** dagokienez, 2025eko ekainean urtetik urterako sarrerak % 9,8 jaitsi dira, 23.194 guztira, eta horrek, guztira, 44.160 ostatu-gau erregistratzea ekarri du. Bizkaian 21.505 ostatu-gau erregistratu dira, Gipuzkoan 22.024 eta, azkenik, Araban 631.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Ekaina 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2025/06	m/m-12 (%)	2025/06	m/m-12 (%)	2025/06	2024/06	2025/06	p.p.
EUSKAL AE	23.194	-9,8	44.160	-12,5	1,90	1,96	41,2	-8,5
Estatukoak	10.681	-8,5	21.146	-17,4	1,98	2,19	-	-
Atzerriarrak	12.513	-11,0	23.014	-7,5	1,84	1,77	-	-
Araba/Álava	405	32,5	631	21,2	1,56	1,70	12,7	-0,3
Estatukoak	359	26,6	528	6,5	1,47	1,75	-	-
Atzerriarrak	46	109,7	103	314,4	2,24	1,13	-	-
Bizkaia	10.975	-27,6	21.505	-33,6	1,96	2,14	38,8	-21,0
Estatukoak	5.332	-27,6	11.169	-36,1	2,09	2,37	-	-
Atzerriarrak	5.643	-27,6	10.336	-30,8	1,83	1,92	-	-
Gipuzkoa	11.814	15,1	22.024	25,4	1,86	1,71	47,2	6,7
Estatukoak	4.990	24,0	9.449	23,7	1,89	1,90	-	-
Atzerriarrak	6.824	9,3	12.575	26,7	1,84	1,59	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Uztailaren 22a

Iturria: Eustat, Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Ostatu mota horretako egonaldien batez besteko iraupena, 1,90 egunekoa izan da Euskal AE osoan, eta plazen okupazio-maila, urte batetik bestera ehuneko 8,5 puntu murriztu ondoren, % 41,2ra iritsi da.

Datu metatuak (2025eko urtarrila-ekaina)

2025ean, orain arte, Euskal AEko **landetxeetan** 75.433 sarrera metatu erregistratu dira eta 167.865 ostatu-gau; 2024ko aldi berean bildutako datuak baino % 7,5 eta % 7,1 gainetik. Batez besteko egonaldia 2,23 egunekoa izan da, hau da, aurreko urtekoaren berdina. Okupazio-mailari dagokionez, plazen arabera neurtuta, % 23,9ra iritsi da, 2024ko aldi metatuan % 21,8ra iritsi zen bitartean. Gelaka neurtuz gero, okupazio-maila 2024an erregistratu zen % 26,2tik gorakoa da, 2025eko lehen sei hilabete horietan % 28,8koa izatera helduz.

Apartamentu turistikoei dagokienez, ekaineko metatua 121.848 sarrerakoa da, eta sarrera horiek 363.862 ostatu-gau eragin dituzte. 2024ko seihileko beraren aldean % 38,3ko igoera izan da sarreretan eta % 18,0koa ostatu-gauetan. Batez besteko egonaldia 2,99 egunekoa izan zen 2025eko lehen sei hilabeteetan, 2024ko aldi berean 3,50 egunekoa izan zen bitartean. Plazen okupazio-maila % 36,3koa da eta gelena % 66,8koa, 2024ko aldi baliokidean okupazio-maila baino ehuneko 0,6 eta 2,8 puntu gainetik.

Turismo-aterpetxeei dagokienez, 2025ean 112.868 sarrera eta 199.136 ostatu-gau izan dira, % 2,6 gehiago sarreraren kasuan eta % 1,5 gutxiago ostatu-gauen kasuan, 2024ko sei hilabete baliokideekin alderatuta. Batez besteko egonaldia 1,76 egunekoa izan da, hots aurreko urteko 1,84 egunen azpitik. Plazen okupazio-maila, azkenik, % 34,3koa da, 2024ko lehen sei hilabeteetan lortutako % 35,3 baino puntu 1 azpitik.

Informazio-oharra

ETHren inguruan emandako erantzun-tasa hilabete honetan **% 92,4**koa izan da landetxetan, **% 85,0**koa turismo-apartamentuetan eta **% 89,0**koa turismo-aterpetxeetan. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

(1) Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimenduetan batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn ematen duten egonaldi osoaren iraupenari.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62